

# KARIBE ALDEAN MENDIAN GORA PICO DUARTE

**L**a cima más elevada del Caribe es el Pico Duarte (3098 m), cúspide a su vez de una de las antillas mayores, la conocida como La Española. Esta cima es a su vez el techo de la República Dominicana, país que con Haití comparte el espacio geográfico que ofrece la isla. Además de una oferta turística variada e interesante, la visita a la República Dominicana puede completarse con la ascensión a varios picos por encima de los tres mil metros en la llamada Cordillera Central. El artículo nos describe estas posibilidades de la mano de Patxi Galé, mientras el polifacético montañero suletino Robert Larrandabürü lo ilustra con la narración de sus experiencias, tanto en el campo montañero, como en el del parapente y alguna otra actividad que no debe perderse quien visite el Caribe. Los apuntes de Ricardo Hernani acerca del techo del archipiélago, la historia de su nombre y de su conquista, completan este artículo, en un formato plurilingüe un tanto novedoso, que pretende ofrecer una alternativa también atípica a quienes buscan escapar de las rutas y modelos tradicionales del montañismo...

■ La Ciénaga de Manabao, Pico Duartera joateko abiapuntu arrunta





## ANTILLA UHARTEETAKO GAILURRA

PATXI GALÉ

Kolonek Ameriketara bidean topatu zuen lehenbiziko lurrari -Karibeko hiru irla nagusietako bat- *Quisqueya* esaten omen zioten jatorrizko biztanleek. Espainiarrei gustatu ez eta *La Española* izen ezin kolonialagoa eman zioten. Izen arrakastatsua, zeren halaxe izendatzen baita gaur ere geografia fisikoaz ari den edozein iturri grafikotan. Imperio kolonial espainiarra eta frantsesaren artean borrokaturiko uharte hau, hala ere, gaur egun bi estatutan dago banaturik kultura bi horien eraginaren ondorioz: Haiti mendebaldean eta Dominikar Errepublika Atlantikora begira ekiadean. Irlaren bihotzean, mendebaldetik ekiaderra zigizagean eta kasik guztiz Dominikar Errepublikaren lurraldetan, Erdialdeko mendilerroa (*Cordillera Central* gaztelaniaz) aurkitzen dugu, mendizaleentzat deigarri. Irla batean egon arren, mendilerro honetan hiru milatik gorako tontor gutxi batzuk igotzeko aukera izan dezake bisitariak, besteak beste Karibe itsasoko uharte guztietako gailurrik altuena: Pico Duarte (3098 m).

Aski hedatua badago ere, mendiak bataio berri samar bati zor dio bere izena. Juan

Pablo Duarte "Dominikar Errepublikaren Aita" tzat daukate gaur egun. 1813an jaioa, aldika Puerto Rico (1801-1809) eta Bartzelonan (1829-1832) bizi izan zen eta bitarte horietan Haitiarren aurkako sentipen nazionala indartuz joan zitzaiion. 1838an *La Trinitaria* izeneko silpeko elkartea fundatu eta hortik abiatuko zen Errepublika Donimikarra independentziara eramango zuen mugimendu ideologikoa. Kolonia hura Espainiatik 1844an askatu bazeen ere, berriro ere elkartu zen 1861ean eta behin betiko independentzia 1865ean lortu zuen. XX. mendeko lehenengo urteetara arte, gure mendiak *La Pelona* izena izan zuen eta alderik gorenean dituen tontor bizkietarako erabiliz ohi zen: *Pelona Grande* eta *Pelona Chica*.

1930 urteen hamarkadan Pico Trujillo izena eman zitzaiion, urte horretan bertan igo baitzen boterera Rafael Leónidas Trujillo lehendakari ustela, diktadore leinu bati hasiera emango ziona. 1961ean hil egin zuten eta trujillotarren saio zapuztu batzuen ondoren gertaturiko erregimen txandakatzearrekin, izen-aldeketa etorri zitzaiion gailurrari ere.



Juan Pablo Duarte

# EL PICO DUARTE

RICARDO HERNANI

**U**NO de los datos más controvertidos de esta montaña es su altitud. Desde que el "escalador de montes tropicales" Erik L. Ekman lo escalara en 1929 otorgándole 3175 m al entonces denominado Pico La Pelona, este dato se ha mantenido de forma oficial hasta nuestros días. No obstante, el dúo Pérez-Canela, formado por Juan Bautista Pérez y Miguel Canela, que protagonizó 6 ascensiones entre los años 1920 y 1930 le concede 3128 m en su medición de 1928. Posteriormente, y durante la dictadura de Trujillo, "el más grande dominicano", se promulga la ley de 26 de agosto de 1936 en la que se establece oficialmente la altitud de 3175 m para el que a partir de ese momento pasaría a llamarse Pico Trujillo. Durante la propia tiranía de Trujillo se realizan mediciones que rebajan dicha altitud, pero no sería hasta finales del siglo XX cuando nuevos estudios por parte de varios organismos –entre ellos la Sociedad Norteamericana de Geografía– dan el resultado de 3087 m para el mayor de los dos picos gemelos que componen el Pico Duarte o La Pelona. Nuevas mediciones de 2003 recogidas por el "Caribbean Journal of Science" han popularizado últimamente la altitud de 3098 m.

La primera ascensión al Pico Duarte de la que se tiene constancia corresponde al entonces cónsul inglés Sir Robert Schonburg, que realizó la travesía de Jarabacoa a Constanza en 1852. Enrique F. A. Eggers lideró posteriormente una expedición de interés botánico en 1887. Ya en el siglo actual, y a partir de los años 20, fueron varios los dominicanos –salvo el abogado Juan Bautista Pérez, todos ellos médicos–, que hicieron suyas las lomas del Pico Duarte: Miguel F. Canela, José de Jesús Jiménez Almonte, Federico W. Lithgow y Santiago H. Bueno Torres... Como puede apreciarse, son numerosas las ascensiones, anteriores a la que algunas fuentes citan como "primera" de 1944. Corresponde ésta en realidad a la que se organizara con motivo del centenario del nacimiento de la República Dominicana. A tal efecto 6 grupos de montañeros locales ascendieron a la cima por diferentes itinerarios para reunirse en la cumbre el 31 de diciembre de 1943 y 1 de enero de 1944. Así se puso en marcha la tradición de ascenso el día de Año Nuevo, que aún perdura en nuestros días.

Esan bezala, Erdialdeko mendilerroko alderik gorenean bi tontor nagusi bereiz daitezke: Pico Duarte (lehen Pelona Grande) 3098 m diituena eta La Pelona (lehen Pelona Chica) 3085 izanik. Bien arteen kilometro eta erdiko distantzia laburra dago eta Vallecito de Lilís izeneko sakonuneak bereizten ditu, 150 bat m beherago. Ekialderago kausituko dugu hiru mila metroak erdiesten dituen beste tontor bat: Loma la Rusilla (3038 m). 2500etik gorako beste gailur interesgarri batzuk dira Loma de la Viuda (2801 m), Pico Yaque (2761 m) eta Pico del Barraco (2644).

Erdialdeko mendilerroa irla osoaren ur hornitzale nagusia da. Horregatik, bereziki zaintzeko urratsak eman dira, honako parke nazionalak fundatuz: Armando Bermúdez 1956an, José del Carmen Ramírez izenekoa 1958an eta Loma Nalga de Maco 1995ean. Gaur egun hiru parke hauetako batean elkarteko asmoa dago. Jatorri bolkanikoko arroka aurkituko dugu nagusi mendilerroko paisaietan eta, landareztari dagokionez, zuhaitzik ugariena –bereziki goiko aldeetan–, Española uhartean endemikoa den pinu kriolloa (*Pinus occidentalis*). Zuhaitzak desagertzen diren altueretan eta euri gutxiago jasotzen duten beheko lautadetan ere, zenbait sabana xume aurkituko dugu, aipaturiko Vallecito de Lilís aurkintzan bezala. Karibeko oihanen itxurak kontrako ematen duen arren, animalia handirik ez dugu aurkituko uhartean. Hortaz, ez dugu arrisku horren kontrako neurririk hartu beharko eta mendira ez abiatzeko aitzakia hori ezingo dugu erabili. Klima orokorra epela eta euritsua da, baina uda sasoian –ipar hemisferioan dago Karibe osoa eta, beraz, uztailabuztuaz ari gara– eurite bortitzak egoten dira. Hala ere, ez zaitezte temperaturaz fidatu: goizaldean oso arrunta da 0ºK jaistea eta horretarako prestatutik joan beharko da mendira.

Emandako argibide orokorrak emanda, erraz uler daiteke Pico Duarte igoaldirik ugarienak Gabona eta otsailaren amaiera artean izatea. Mendian bake apur bat bilatzen duenak kontuan izan beharko du urtarrilaren 26an igotzen dela jenderik gehien, data horretan, hain zuzen ere, ospatzen baita "Aberriaren Aita Juan Pablo Duarte"ren eguna. Igobiderik erabiliena –erraz, labur eta ekipatuena izateagatik–, La Ciénaga de Manabaotik abiatzen da eta, ondorioz, fetxa horretatik kanpo ere, oso normala da pila bat jende aurkitzea, aterpeak beterik egotea, zerbitzuak aski ez izatea eta era honetako atsekabeak. Arrazoi bat gehiago dugu hau guztia, igotzeko eguna arreta handiaz hautatzeko. Jakin behar da, gainera, normalena inguruko herrietako gidari baten laguntzaz egin ohi dela txangoa. Zenbaitetan, ekiporako zamarien laguntza ere lor daiteke, bertako ohitura ez ezik, parke nazionaleen inguruko herrixken biztanleriarentzako diru sarrera lagungarria ere izaten delako. Zerbitzu hauetako lortzeko erraztasuna, jakina, hautatu den bidearen ohikotasunarekin bat dator eta, hala, errazago bilatuko dugu gidari bat Mata Grande edo La Ciénaga de Manabao herriean, Sabaneta, Padre las Casas edo Constanza baino. Denbora eta garraiobidea ziurtatuz gero, onena ibilbide desberdinak konbinatzea izaten da, modu honetan mendilerroko isuralde bietako paisaiak ezagutzeko aukera izango dugu eta.

## DOMINIKAR ERREPÜBLIKA ETA... RONA

ROBERT LARRANDABÜRÜ

"**Q**UE calor!" joan beno lehen, lagün batek erran zeitan: "Hana rona lasaiki edaten ahal dükək, segidan izerdiaren bidez ezkapatzentz beita!" Eta zer rona! Zernahitaz, astebürüetan zerbait alkoholik gabe atzamaitea gogorra zen. Rona, edozoin dendatan edo kanpoko ostattutan agertzen beita. Hola, laster ulertü günütüan hanko gidatzeko egin-moldeak, Ordüan, ez zen bide gaixtoen estakuria baizik eskuin-ezker autoak joaten balinbaziren!!

Hanitxetan Dominikar Errepública entzuten düğülarik, hondartzatza hitza gure pentsamentüala heltzen da. "Todo incluido" merke merkekin, prezioak oso apal dütienekin, bena... beti bada bena bat! Egia erraitez, formüla horrek, ez dū deus ikustekorik hanko bizitzarekin,

Maleruski hanko bizizaleentako, pesoa (hanko sosa edo dirua) urte batez, hiru aldiz zankazgora (bürtütik behera) joan da. Beraz, guretako prezioak hanitxez apaltu dira. Deusentako jaten ahal da eta hanko garagardoa –Presidente– ontza sartzen da!

Mila gaúza egiteko badira ugarte ejer hantun, diru edo sos güttü xahütüz. Eta ez itsasoko aktibitateak baizik: parapentea, VTT, canyoning, zaldia, ibilaldiak... Hala nola Pico Duarte Karibeko mendi gorena 3087 m dütüana.

Gük, auto bat alokatü günütan Santo Domingo hirian. Hola, lasaiki ebilten ginen. Ugarte hori, ez da handi, ez eta tipi ere, bena toki batetik besteala joaiteko, beti Santo Domingo hiri nagusitik igaran behar da.

Bost dira Pico Duarteko gailurra erdiesteko jarraitu ohi diren bide ezagunenak. Esan bezala, erabiliena Jarabacoa herritik La Ciénaga de Manabaon zehar abiatzen dena da. Azken toki honetan gure txangorako zerbitzu guztia izango ditugu eskueran. Jarabacoa hertzeko, Santo Domingo hiriburutik Santiago aldera doan autobidea segituko dugu, harik eta La Vega herria pasatu arte. Honen ondoren, bide hau utziko dugu, mendebalderantz abiatzen den errepidea segitua eta Bayacanes herrira igotzeko. Bide horretan aurrera helduko gara Jarabacoa herri nagusira eta aurrerago Manabao eta La Ciénaga aurkituko ditugu.

## ■ IBILBIDE ARRUNTA, LA CIENAGA DE MANABAO HERRITIK

Hau da, alde handiaz, Pico Duarte igotzeko biderik erabiliena. Ibilbideak 23 km eskas ditu bakarrik eta egun t'erdi nahiz bi egunetan erdiets daiteke gailurra, La Ciénagak dituen 1100 m-etatik, tontorraren 3087etarako

igoera buruturik. Planik ohikoena jarraiturik, lehenbiziko egunean La Compartición izeneko etxolaraino igozen zen, sasoian zehar (urtarrila-otsaila) lepo beterik kausi zitekeena.

Duela gutxi, hala ere, aterpe modernoago bat atondu da La Compartición baino are gorago, gailurrerako kilometro eskas bat falta delarik, Vallecito de Lilís izeneko harantxoan, baina lo egiteko tokia seguruagoa izanik ere, aukera berri honek ez digu plana gehiegiz aldarazten.

Beste aukera bat dago, hala ere: La Ciénagatik berandu irten eta herritik hurbil dagoen Los Tablones etxolan gaua gaua pasatzea, alegia. Berau 1270 m-tan dago bakarrik eta, ondorioz, hurrengo egunean igoera gogorragoa egin beharko da, abiapuntua baxuegia eta gailurrerainoko bidea frankoz luzeagoa delako. Bigarren eguna, beraz, nekagarriegia suertatuko zaigu, batez ere jaitsiera ere egin nahi badugu...

Nolanahi ere, bide honetan gora goazela, begiratoki interesgarriak izango ditugu Pico de la Cotorra izeneko tontortxoan (1720 m) eta La Laguna aurkintzan (1980 m). La Comparticiónerako igoeran lortzen den punturik garaiena Agüita Fría bizkarrean dago, ondoren, etxola zegoen tokiraino jaitsiera labur bat baino gelditzan ez zaigula.



■ La Compartición aterpea

Ugarte erditan Jarabacoa herri ttipia atzamaiten da. Gü uztailan ginen, eta segur mendiaren freskura bortuetan atzamaiten ahal gönüala edo ur turrustetan igerika. Ez düü VTT edo canioning egin, bera lekü hortan, kirol horiek egiten ahal dira. Pico Duarteren egitera abiatü ginen. Ez dü balio agentzia batekin joaitea. Jarabacoatik La Ciénagara joaiten den bidea har eta, han, mendiko laguntzale edo gidari bat hartzea aski beita. Bezeran joaitea hobe da, hola sartzeko baimena hartzen ahal da, parke bat beita, eta erosketak –jatekoak-eta– gidariarekin egiten dira. Bera sükaldari dateke eta jakiteko zonbat zaldi behar diren, bera-rikusten da. Merkeak dira eta hobe da zaldiekin joaitea, hola bizkarreko zaküak arintxago dira. Kasü, ibilaldia lüzexka beita!

Oihal-etxe batekin han bertan lo egitea posible da. Gü, berriz, Jarabacoarat joan ginen (oren bat et'erdi). Biharamünean, goizeko hitzordüa, zazpi t'erdietañ gönüan.

Mendia bi egünez egiten da.

Orai arte, La Ciénagatik (1110 m), La Compartición (2450 m) arte joaiten zen, han aterbe bat zelako. Laster deseginik dateke, zeren beste aterbe batzen eraikitzen ari beitira, oso ejerra, bera gorago, Valle de Lilís, 2950 m-tan dena. Orotara, 2100 m igo behar da kasü hortan (ez da beti goruntz joan behar, batzuetaen eraitsi behar beita). Oihal etxe bat ükeitez, apalago lo egitea posible da. Bigarren egünean, tinia edo tontorra egiten da, lasaiki.

Bazterrak berdez beztitürük dirade, oihanea kasi gaineala arti-no hedaten beita. Hastapenean, oihandi bezala agertzen da, pean ümitarzüna azkar delakoz, gero, pinoak bere üsain goxoarekin atzamaiten dira. Tinian, harri zonbait eta Duarteren oroitari bat. Jakin behar da, Duarte jaunak, Haitiko dominazioaz, bere herria askatü züala. Hargatik, gaine hartan, bere oroi menez, bere aurpegia atzamaiten da.

Eraisteko, sei oren edo ordu behar dira. Oroetara bi egünez, 46 km egiten beitira.



■ Pico Duarte La Compartición aterpearren ondotik



■ Juan Pablo Duarteri gailurrean eraikitako oroitarrria

FOTO MARKUS KRAUSE

## ■ AUKERAKO BESTE IGOBIDE BATZUK

Denbora eta gogoa izanez gero, baditugu beste aukera batzuk Pico Duarte igotzeko. Guztia dira La Ciénagakoa baino egun bat luzeagoak eta, beraz, beste aurkintza eta paisaia batzuk ezagutzeko parada ere eskainiko digure. Honako hauek dira arruntenak:

Mata Grande herritik abiatuz gero, 45 km-ko ibilaldia izango dugu Pico Duarteraino. Gainera, herria 850 m-tara dago bakarrik eta gainditu beharreko desmaila serio samarra da. Pico Duarterra hurbildu ahala, zenbait ibar zeharkatu behar dira eta ibilbidean gora eta behera aritu behar da etengabe. Azkeneko igoerak Pelona Chica tontorrera eramaten gaitu eta Vallecito de Lílísera jaitsi ondoren eraso behar zaio Pico Duarteri. Abiapuntura heltzeko, Santiago hirian San José de las Matasera doan errepidea hartu behar da, hegomorenbalerantz. Jánico herria pasatu eta Pedregal en utziko dugu errepide nagusia, hegoaldera abiatuta, Erdialdeko mendilerroan barnatzeko. Los Montones eta La Guazuma atzean utzi eta Mata Grandera helduko gara berehala. Etapak bidean zehar dauden etxolan arabera antolatu ohi dira eta herritik abiatuta, lehenbizikoan La Guácara izeneko aterperaino joan ohi da (20 km, 6 ordu). Bigarren egunean, Valle del Baoko aterperaino heltzen da. 12 km dira bakarrik, baina igoera gogor batzuk ditugu eta dagoeneko, Pelona Chica mendiaren maldari ekingo diogu, 1800 m-ko altuera erdietsirik (5 ordu). Azkeneko egunean lau bat ordutan hel daiteke tontorrera. 13 km-ko ibilaldi laburra den arren, 1300 m-ko desmaila egin behar da eta, gainera, jaitsiera ondo pentsatua eraman, bide beretik, La Ciénagako normaleitik edo beste ibilbide batetik egingo ote den alegia, bereziki lo egiteko leku aukeratzeko.

Beste bide arruntetariko bat Constanza herritik abiatzen da. Pico Duarte hegoekialdetik egiten duen zidor honek 43

km ditu gutxi gorabehera. Lehenbiziko egunean Los Rodríguez etxolara dauden 24 km-ak egin ohi dira baina, bidearen egoeraren arabera, herria baino gorago dauden Los Corralitos herrixka edota Los Cayetanos aterperaino ere hel daiteke batzuetan ibilgailuz. Constanza 1160 m-ko altitudean dagoen arren, kontuan izan behar da, Los Cayetanosetik aurrera metro asko galdu egin behar direla Los Yaqueillos errekan trokaraino (900 m). Ondoren berriro ere igo eta Los Rodríguez aterpera heltzen da. Bigarren egunean zapta ordutako ibilbideak eramango gaitu Valle de Tetero izeneko aurkintza ederreraaino (16 km), baina bitartean zenbait igoera eta jaitsiera gainditu behar dira, Loma Vieja (1900 m) eta Loma Alto del Valle (2100 m) erdiesteko. Loma Viejarako igoeran dago Sabana Andrés izeneko lautadatxoa. Hor elkartzen zaigu Las Lagunasetik datorren bidea. Valle de Tetero delako lekuaren Erdialdeko mendilerroko gailurrik ederrenak ditugu iparraldean ortzemuga: La Rusilla, Pico del Yaque... Hirugarren egunean, 15 km ditugu Pico Duarterko gailurra lortzeko, baina igoerak gogorrak daude eta zortzi ordu inguru behar izaten dira. Pico del Yaquearen hegoaldeko maldan gora zeharka abiatuz, Agüita Fríara irtetea lortuko dugu eta, handik tontorrera, La Ciénagatik datorren bide berbera jarraitu behar da. La Compartición izeneko aterpea pasatu, azkeneko aldapak igo eta Pico Duarterra iristen da hala.

Badago beste aukera bat Las Lagunas izeneko herrixkatik abiatzen dena, hegoekialdetik alegia. San Juan de la Maguana herrira doan errepidek goazela, Las Yayaseko bidegurutzean eskuinera hartuko dugu bide adar bat Padre las Casas herrira igotzeko. Hemendik Guayabalera doan bidea hartuko dugu, baina haraino heldu barik, 9 km egin ditugunean bidea utzi eta ezkerretik abiatzen den aldai piko batean gora, Las Lagunas izeneko aurkintzara helduko gara. Pico Duarterra joateko, 900 m-tara dagoen Las Lagunasetik

abiatu eta berehala, El Limón herriaren ondora jaitsi beharko dugu (550 m), ondoren, berriro aldapari ekiteko. El Botoncillo herri alaia atzean utzirik (1000 m), Las Cañitas herrixkara helduko gara (1450 m). Hemen lo egin edo El Teterora jaitsi daiteke akanpatzera, toki bietan baitago edateko ura. Bigarren egunean, etxalde honetatik iparrerantz abiatuko gara aldapan gora eta 4 km-tara erdietsiko dugu Sabana Andrés izeneko aukintza, non Constanatzat datorren bidearekin elkartuko garen. Hori bera jarraituz helduko gara Valle de Teterora eta, hirugarren egunean, Pico Duartera igoko.

Azkenik, badago beste igobide bat Pico Duarteko tontorra hegoaldeko lortzen duena, San Juan ibarretik hain zuen ere. Abiapuntua Sabanetako presa izaten da eta 600 m-ko altitude xumeant dago. Gainera, tontorreraino 48 km daude eta arrazoi bi horiengatik bide honetan jende gutxi aurkituko dugu. Sabanetako urtegira heltzeko San Juan de la Maguana herrian bertan hartu behar da hara doan 20 km-ko errepidea. Lehenbiziko egunean 12 km egingo ditugu, baina 1000 m-ko desmaila gainditu behar da eta horrek sei ordu inguru hartuko digu. Errepide zaharren aztarnari segika erdietsiko dugu batik bat, Alto de la Rosa izeneko aukintzan dagoen etxola (1700 m). Bigarren eguneko ibilbidea 22 km-koa da eta hamar bat ordutan egin ohi da. Pare bat ordutan helduko gara Piedra del Aguacate izeneko lekura, Limón erreka zeharkatzeko. Ondoren Cabecera del Río Mijo gailurrera igo (2200 m) eta 2400 m-ak lortuko ditugun beste malda baten ostean, Macutico izeneko etxolara jaitsiko gara, Río Blanco ibarrean. Hemen lo egin eta hirugarren egunean, Pico Barraco (2644 m) egingo dugu pare bat ordutan eta beste horrenbestetan Pelona Chica (3085 m). Hemendik Vallecito de Lilisera jaitsi eta 150 m-ko azken aldapa baizik ez zaigu falta Pico Duartera heltzeko.

### ■ DOMINIKAR ERREPUBLIKAKO BESTE AUKERA BATZUK

Beste güne edo toki bat bada, turismo liburuek aipatzen ez düena, eta zinez ejer dena ebilteko. Toki hori kokatzen da hego mendebaldeko eskualdean, San Juan de la Maguana hiriaren ondoan. Juan Herrerako bidea hartu eta, La Maguana artino joan. Han, zuen aitzinean, mendiak dira. Senden hartzeko, mintzatü behar da hanko joaitekin. Hegiz hegi joaitea polit da. Gü parapentez aidatzeko ebili gira hantik. Freskatzeko ere, pean, ur turrusta tipi zonbait badu.

Parapentea: 1980an hasten da aktibitate hori. Lehenik, oso jente guttirekin, bena orai gehiago dira. 1996. urtean frantses monitore bat –Simon Vacher– han jarri da, eta gerotzik parapentista zonbaiten artean, giro hon bat sortu da. Beste frantses baten arabera –Georges Thevenet–, Dominikar Errepüblikan, 60 güne edo toki desberdin hegaltatzeko balizateke 1994ko urtarilean, *Pre-word Cup* mündüko lehiaketa bat antolatükirik dateke. Horrek, zerbaite erran nahi dū!

Toki güziak ez dütüğü bisitatü ahal izan, baina aholkü bat emanez, hanko norbaitekin joaitea hobe da. Famatü diren tokiak hego mendebalean aurkitzen dira. Azúa hiri nagusitik, ordu bat et'erdira baizik ez. Han, *soaring* egiten da, itsatsaaren aitzinean. Las Agüitaserat autoz joaiteko, hirur oren et'erdibehar dira. Han, thermikaren teknika baliatü behar da airean bidajatzeko. Matua Santo Domingo hiritik hüllanera edo hurbilena da baina, pribatua da eta hanko parapentista batekin joan behar da. Ez dütü ahantzi behar, ugarte erditana, Manaclita. Han ere, hanko norbaitekin joaitea hobe da, 4x4 beharrezkoa beita. Baina, zer pollita! herri ttipien erdirarik igaraiten da. Jarabacoan, bi toki : La Antena eta Alto del Guayabo.

Dominikar Errrepública bikain atzaman dügü: Popülüa arrunt goxo goxoa, müsika eta kultür bat bero-beroa, baxter amiragarriekin. "Todo incluido" hanitz izatez, beste tokiak lasaiak dira.

Ez ahantz, itsatsio güne eder batetan, Las Terrenas, ugartearen ipar ekialdean, jatetxe euskaldün bat badela, Casa Boga. Iñaki eta Isabeleri bista bat egin eta gaineala, ontsa janen düzüe itsas bazter-bazterrean. Tel. (809)2406321 [casa'boga@terra.es](mailto:casa'boga@terra.es)



■ Landaretza tropikal Agüita Fría izeneko parajea

### Informazio praktikoak, Bestelako informazioak

Prezio zonbait (Prezio güzientzat, desberdintarzunak badira, tokien arabera):

Hegazkina: 760 €

Lo egiteko gela bat, bi pertsonentzat: 10 edo 15 €

Jatekoak: 3tik 10 € arte

Garagardo bat: 0.50 €

Ron botella ttipi bat (extra viejo 33 cl): 1 €

Hona heben, parapentisten telefono edo mail zonbait:

Frantsesak: Georges Thevenet (809)224 9397

[Georges@CaribbeanFreeFlying.com](mailto:Georges@CaribbeanFreeFlying.com)

Simon Vacher 1 882 1201

[simonvacher@yahoo.com](mailto:simonvacher@yahoo.com)

Argentinarra: Julián Molina (809) 974 6116

Dominikarra: Roberto de Jesús Rodríguez (809)599 8170

[robertowindbike@yahoo.es](mailto:robertowindbike@yahoo.es)

Bestelako informazioak:

DÍAZ, José: *Rumbo al Pico Duarte*, Santo Domingo, 1997.

PÉREZ, Renato & Kalalú-Danza: *Hacia el techo del Caribe*; caminatas al Pico Duarte, Kisveya Destinación Alternativa, Santo Domingo, 1999.

[www.caribbeanfreeflying.com](http://www.caribbeanfreeflying.com)

# R<sub>e</sub>sumen (R. Larrandabürü)

A montaña más alta de la República Dominicana y de la isla es el Pico Duarte (3098 m). Hay dos formas de organizar la ascensión a esta cumbre. En el pueblo de Jarabacoa encontraremos diferentes agencias de trekking que venden la excursión "todo incluido". También podemos organizarla nosotros mismos. Para esto, iremos hasta la aldea de La Ciénaga el día anterior. Aquí, a la entrada del parque tendremos que contactar con un guía obligatorio que nos ayudará en el alquiler de mulos, la compra de comida para los dos días, etc. Aconsejamos vivamente la utilización de animales de carga, pues la ascensión salva en total más de 2000 m de desnivel. Ya se dispone de un nuevo refugio para pernoctar en la zona más elevada del itinerario.

Otro lugar que merece la pena visitarse son los alrededores de San Juan, en el suroeste de la isla, La Maguana, cerca de Juan Herrera. Parapente: No he estado en todos los lugares donde se practica el parapente. Esencialmente se encuentran en el Suroeste y es mejor ir acompañado de un nativo. Para hacer soaring en el mar iremos a Azúa, que está a 1h 30' de la capital. Para volar en térmicas y pasear, iremos a las Agüitas, 3h 30' desde Santo Domingo. Tampoco hay que olvidar La Manaclita, en el centro de la isla, si bien se necesita un vehículo 4x4 para llegar al decolage. Gozaremos de lugares alejados de los centros turísticos. En los alrededores de Jarabacoa hay otros dos decolage: La Antena y el Alto del Guayabo. No olvidéis hacer una visita a los vascos Isabel e Iñaki, que tienen el restaurante Casa Boga en el pueblo de Las Terrenas, al Nordeste de la isla.




FOTO MARKUS KRAUSE

■ Parke nazionaleko sarrerako zubia, Los Tablones'tik hurbil





■ Garraiolarien topaketa La Cotorrako maldan

## Résumé (R. Larrandabürü)

**S**ANTO Domingo, ce n'est pas uniquement le royaume du "todo incluido" où, à partir d'Europe, on peut s'offrir pour pas trop cher un voyage au soleil "tout compris": repas, vigiles, plage privée, petit bracelet en plastique (pour mieux vous cataloguer) au poignet, etc. mais les gens sont parqués et ne voit pas grand chose de ce pays merveilleux. Enfin, chacun ses goûts. Pourtant ici, au grand malheur des dominicains, les cours se sont effondrés et en l'espace d'un an la monnaie locale, le peso, a été dévaluée trois fois rendant des prix très attractifs. On peut manger pour pas cher et la bière locale –Presidente– se laisse boire très facilement. Au fait, nous y étions à la mi-juillet et nous n'avons vu très peu de touristes. Ils étaient tous en "todo incluido".

Les activités dans l'île sont diverses et toutes ne sont pas regroupées autour des plages. Canyon, VTT, cheval, rando, parapente.

Le point culminant de l'île le Pic Duarte (3098 m): Pour y aller, il faut se rendre à Jarabacoa. De cette petite bourgade, nichée entre les montagnes, de nombreuses activités natures sont possibles, et pour cela les agences ne manquent pas. Pour aller faire de la montagne, inutile de passer par elles. Il suffit de se rendre à La Ciénaga la veille et un guide se présentera dès votre arrivée. Il est obligatoire d'en prendre un carvous rentrez dans un parc national. Il gèrera tout, de la location des mules à la nourriture que vous achèterez avec lui. Nous vous conseillons vivement le portage par mules car, le dénivelé total est long... plus de 2000 m. Le lendemain, vous partirez très tôt pour deux jours. Pour dormir, un nouveau refuge est mis à votre disposition.

Un autre endroit mérite le détour. Il s'agit des environs de San Juan, dans le SO de l'île. Il faut se rendre à La Maguana près de Juan Herrera. Des paysans vous accompagneront, tout en vous louant des mules.

Le parapente: Je n'ai pas pu faire tous les sites mais mieux vaut y aller avec quelqu'un du coin. Les "spot" se trouvent essentiellement dans le Sud Ouest. Azúa n'est qu'à 1 h 30' de la capitale mais est surtout réservé au soaring de mer. Par contre de Las Agüitas (3 h 30' depuis Santo Domingo) permet

d'exploiter le thermique et de se balader. Très sympa également la montée au décollage, avec possibilité de se faire accompagner par des muletiers. Matua, le plus proche de la capitale est en fait un site privé. Il faut contacter les parapentiste locaux. Ne pas râter le centre de l'île avec la Manaclita. Là aussi, l'accompagnement est nécessaire. Le 4x4, obligatoire. Au déco, le bonheur. Un petit village dans les hauteurs est le point de départ de vos rando aériennes. On est loin des centres touristiques et les gens toujours aussi accueillants. Autour de Jarabacoa, deux sites La Antena et Alto del Guayabo.

L'île est fabuleuse sur beaucoup de points: gens très accueillants, culture et musique chaude, paysages diversifiés. Du fait du tourisme parqué dans le tout compris, on est peinard ailleurs. N'oubliez pas de rendre visite aux basques Iñaki et Isabel, qui tiennent le restaurant la casa boga, dans le NE de l'île, à Las Terrenas.



FOTOS: JOSE IGNACIO GARCIA MUÑOZ